

Nu!



San Praizkuetan joko du
Mendeku Itxua taldeak



Omenaldi beroa jaso zuten
Erroizpe elkarteko sortzaileek



sagardogintzarako tresneria



nafarroa oinez
aldeko produktuak

esparrago puntak
pikilo piperrak
orburuak
menestra

Alkartasuna


nekazal kooperatiba elkarteak

alkartasuna@usurbil.com

Ugarte industrialdea 12 · 943 361 114 · 20170 USURBIL Gipuzkoa

Txirrikikutik !

Irailaren 23an hamar urte beteko dira Udarregi Ibertsolariaren mendeurrena ospatzeko herri antzerkia egin zena. Arrakasta handia izan zuen antzerkiak, herritar askok parte hartu baitzuten. Ondoko argazkia ordukoa duzue, antzerkian parte hartu zutenak ageri baitira. Hona hemen ezkerretik hasita aktore arrakastatsu hauen izenak: Iñaki Agirresarobe, Nikolas Izeta, Itziar Illaramendi, Mikel Elexpe, Ebaristo Pikabea, Iñaki Urkia, Teodoro, Kintin Segurola, Inaxio Usarralde, Asier Otegi, Joxe Jabier Furundarena, Ibon Beristain, Unai Loidi, Luis Mari Bengoetxea, Kerman Rekondo, Joxe Torregarai, Aitor Landaluze, Koldo Huegun, Iñigo Azpiroz, Ibai Esoain, Kattalin Arzalluz, Aitzol Arrospide, Xabier Sukia, Josu Udabe, Izaskun Zubiria, Paulino Ibargoien, Joseba Pellejero, Isabel Agirresarobe, Praisku Aranburu, Maria, Aloña Pulido, Oihana Irazusta, Saioa Erro, Aiora Arrospide eta Oskar Uribe.



Argazkilaria: Joxean Labaien, 1995-09-23
Udarregiren mendeurrena
Noaua! Kultur Elkartea

Zalao Arnaiz Ibareguren

N u !

Argitaratzailea: NOAUA! Kultur Elkartea
Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil (Gipuzkoa)
Tlf.: 943 36 03 21 / elkartea@noaua.com
www.noaua.com

Koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Publizitatea: Maider Alustiza, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Oxkar Santamaria, Maria Angeles Arruti, Maria Jesus Urbietta, Jone Eizmendi, Ekiñe Olaizola, Iñaki Labaka, Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal, Alazne Begiristain, Ana Urdangarin, Joseba Pellejero, Ainara Uribe, Eider Jauregi, Mikel Bengoetxea, Agustín Esnaola, Eneko Harreguy, Salome Portu, Pello Aranburu, Joseba Zubeldia, Imanol Goenaga, Andoni Udabe, Eukene Kamino, Aloña Pulido, Isaak Muñoz, Olatz De Miguel, Iñaki Agirresarobe. Denborapasak: LUMA, O.E.

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkartea@noaua.com

Bazkidetza: Aitziber Aranberri.

Erredakzio Kontseilua: Imanol Ubeda, Zalao Arnaiz, Maider Alustiza, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo.

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza.

NOAUA! hamaboskariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

NOAUA! Kultur Elkarteko jendaurreko ordutegia:
10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

AZALA

Erroizpe elkarteko kide hauei oroigarri bana eman zitzairen.

Aurkibidea

ZUTABEAN, LUIS ARANALDE _____ 4. ORR.

BERRIRO IKASTOLARA JOATEKO GARAIA _____ 5. ORR.

BERRITUA DATOR AISIAKO GIDA _____ 10. ORR.

Irailaren 20an, "Aisiako Gida" eta "Etxetik hasi behar delako" argitalpenen aurkezpena egin zen. Biak, Buruntzaldeko Udalek argitaratuak.



MATRIKULAZIO KANPAINA HASI DU AEK-K _____ 11. ORR.

MENDIAN EZ DA GIRO _____ 12. ORR.

JENDE UGARI IBILI DA SANTUENEAN _____ 13. ORR.

PATXI LABAKAREKIN SOLASEAN _____ 14. ORR.

MENDEKU ITXUA TALDEAREN URTEA _____ 16. ORR.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako
Foru Aldundiak
diruz lagundutako
aldizkaria



Kultura sailak diruz
lagundutako
aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herrira!

Zutabea !



LUIS ARNALDE

Tolerantziaren eta anaitasunaren ikonoa

Harri eta zur gelditu nintzen berria irratiz entzun nuen, alegia, Roger anaia ("frère Roger" bezala zen ezaguna mundu osoan) hil zuela hiru labankadaz emakume zoro mitomano batek. Egunero bezala, 2-3 mila gaztez inguraturik zegoen "adiskidetasunaren kapera" erraldoian goizeko otoitza zuzentzen. Abuztuaren 16an zen; 90 urte zituen. Biziaren ironia: bakearen eta tolerantziaren profetak armaz hiltzen dituzte sarritan.

1972an ezagutu nuen. Betharram-go (Lourdes-en ondean dago herrixka hau) zuzendaria eta biok joan ginen Taizé-ra ikasle batzuekin; Bazko Astea zen. Inoiz ez zait ahaztuko aipaturiko kapera horretan entzun nuen Rimsky-Korsakov-en "Gure Aita"; goizeko zortziak ziren, elurra egiten zuen, ehundaka gazte abesten; kantua edertasunaz at, Jainko bilaketaren edo esperientzia erlijioso sakon baten ikono gertatu zitzaidan. Gutxitan izan ditut nik horrelako bizipen espiritualak.

Taizé herrixka bat da, mendiska batean kokatua. Roger anaia (protestantea erlijioz) suizarra zen jatorriz eta 1940an iritsi zen auzo horretara, Hitler-ek erasotzen zituen judutarrei laguntzeko asmoz. Bere arrebak lagunduz, aterpetxe bat antolatu zuen: judutar askok aurkitu zuen bertan harrera gozoa eta salda beroa.

Gerra amaitu ostean, beste lagun batzuekin monastegi bat eraiki zuen Taizé-n. Baina, monastegi atipikoa: Roger protestantea izanik, onartzen zituen bertan katolikoak, ortodoxoak, judutarrak... Hau da, monastegi ekumenikoa sortu zuen. Inoiz ez zen horrelakorik gertatu. Tolerantziaren eta anaitasunaren gunea izatea nahi zuen monastegi hori. Joan XXIII Aita Santuak esan zuen: "udaberri txiki bat da Taizé".

Espiritu berri honek erakarri ditu mundu osoko milioika

gazte; duela 50 urte sinesgaitza zen horrelako abentura bat: hain hertsia ziren kristau katolikoak, protestanteak eta abarrak... Hats berri honek txundituta utzi zuen gaztedia eta horregatik hasi ziren Taizé-ra hurbiltzen erromes gisa. Han aurkitzen zuten beren herrietan eta elizetan ikusten ez zutena: irekitasuna, tolerantzia; han jabetu ziren egia handi honetaz: askoz gehiago dela batzen gaituena sakabanatzen gaituena baino.

Askatasunean eta irekitasunean egiten dira hango bilerak, mahai-inguruak, otoitzak, bilerak... Gogoan dut oraindik ere: bakarkako otoitzaren edo gogoetaren une batean batzuk lurlean eserita zeuden, bestean etzanda, zenbaitzuk belauneko...

Bakearen mezulari hau Euskal Herrira ere etorri zen 1980 inguruan; bazuen hemen bizi genituen tentsioen berri eta apal-apal bakearen aldeko otoitzaldi batean parte hartu zuen Erretereriako elizatzako batean.

Galdetzen ziotenean ea nola izan zuen Taizé-ko mugimendua sortzeko ideia, beti erantzun berdina ematen zuen: "nire amonaren oroimenak bultza ninduen, izan ere, munduko lehen gerrararen hasieran eliza katoliko batera joaten zen otoitz egitera arartsero; protestantea zen nire amona eta ekintza horren bidez Europaren batasunaren sinbolo izan nahi zuen; nik ere horixe amestu nuen".

Urtean zehar ehun bat mila gazte hurbiltzen dira Taizé-ra otoitz egitera, beren konpromezuak gauzatzeko indarbertzera, beren kezka erlijiosoak eta ametsak konpartizera...

"Bakearen aldeko heziketaren saria" eman zion Unesco-k 1988an. Joan Paulo II Aita Santuak esan zuen: "Taizé-ko mugimendua iturriaren gisakoa da: ibiltaria gelditzen da bertan, edaten du eta indarbertututa berriro bideari jarraitzen dio".

Ainhoa Azpiroz - Aitor Landaluze - Jakoba Errekondo - Luis Aranalde - Nerea Zinkunegi - Idoia Torregarai

IKA MIKA ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA.

ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA,

NOAUA!k IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESUBIDEA IZANGO DU.

NOAUA!k ez du bere gain hartzen **IKA MIKA** atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Hurrengo alea: urriak 7. Idatzia ekartzeko **azken eguna:** irailak 30.

ASKO DUGU ESATEKO

NOAUA! hamaboskaria, Euskal Txokoak, tren eta autobusen ordutegia, noaua.com, kultur ekitaldien sustapena, euskararen normalizazioa, urteko egutegia, beka deialdiak, NOAUA! Txiki, Fototeka, Plis, Plas, Txalo ta Jolas, "Usurbilgo Baserriak eta Baserritarrak" ... Gure bazkideak harro egoteko moduan dira. Baina gehiago eta hobeto lan egin daiteke.

Zure babesa funtsezkoa da kultur elkarte honen sustenguan.

Bazkide egin zaitez!

Noaua !

36 euro urte osorako

Izena: _____
 1.Abizena: _____
 2.Abizena: _____
 Helbidea: _____
 Herria: _____
 Telefonoa: _____
 E-posta: _____
 Kontu Korrontea: []

Berriro ikastolara

Ikasturte berriak zuzendari berria ekarri du Udarregi Ikastolara. Hainbat urtez irakasle lanetan aritu ondoren, zuzendari lanetan murgildu da Mariaje Imaz. Hala ere, erronka berriari gogotsu ekin diola adierazi digu Mariajek.

NOAUA! Zuzendari izatea ez da lan samurra izango. Laguntzarik izango al duzu?

Mariaje Imaz. Nirekin batera koordinazio-taldea arituko da lanean. Ikasturte berrian, koordinazio laneko kideen dedikazioa handiagoa izango da. Orain arte, astean hiru orduz aritu izan dira. Aurrerantzean, bost orduz arituko dira lan horietan.

Haur Hezkuntzako koordinatzaile Ainhoa Salsamendi izaten jarraituko du. Lehen Hezkuntzako, Aloña Mendizabal; DBHkoa, Nerea Zinkunegi.

Bestalde, Artezkaritza Kontseilua dago. Gurasoz eta langilez osatuta dago. Bilerak hiru astean behin egiten dira eta elkarrekin jardungo dugu Ikastolako antolaketa eta funtzionamendu gaiak bideratzen.

N. Zein izango da zure eginkizun nagusia?

M. I. Batez ere, datozen hiru urteetarako Plan Estrategikoa zehaztea. Nik zirriborro bat prestatuko dut eta, ondo-

ren, zirriborro hori koordinatzaileen taldean aztertuko da. Era berean, Artezkaritza Kontseiluan eta Irakasleen Klaustroan aztertuko da. Azken erabakia, dena den, Artezkaritza Kontseiluarena izango da, Ikastolako organo gorenarena.

N. Une honetan, zein da Udarregik duen erronkarik handiena?

M. I. Gai inportanteenetariko bat espazio fisiko berrien kudeaketarena izango da. Ikastola asko handitzen ari da. Etorkizunari begira, oso garrantzitsua izango da gai hau argitzea eta lantzea. Toki egokien premiak ondo aztertu beharko dira.

N. Etxe berrietara etorritako bizilagunak, etorkinen etorrera... Ikasle kopuruak ere gora egin du, ezta?

M. I. Herria hazten ari da eta Ikastola herrian dagoen ikastetxe bakarra da. Joera, gainera, herrian bertan geratzeko denez, Ikastolara etortzen dira ia denak.

Etorkinak ere, gero eta gehiago dira. Hiru ikasle berri matrikulatu zaizkigu aurten. Ikasturtean zehar, gainera, gehiago etor daitezke eta haien artean, kasuistika ezberdina aurki daiteke: Batzuk eskolagabeak dira, edota jatorrizko herrialdean bestelako eskolatzeko izan dute... Baliabide asko behar dira. Eskasian gabiltza, bereziki, maila akademikoan eta hizkuntza berriak irakasten



MARIAJE IMAZ, UDARREGI IKASTOLAKO ZUZENDARI BERRIA.

laguntzeko. Nahiz Eusko Jaurlaritzatik dirulaguntzak iritsi, ez dira behar guztiak asetzeko nahikoak.

MARIAJE IMAZ

“Lankideen babesa sentituko dut eta hori erabakigarria izan da lan berriari ekiteko”

N. Ilusioz ekin al diozu ikasturte berriari?

M. I. Bai noski! Hasierak gogorak izaten omen direla... Baina Ikastolako guztion lanarekin dudarik ez dut egiten, ditugun erronkei aurre egin ahal izango diegunik. Lankideen babesa sentituko dut eta hori erabakigarria izan da lanpostuari eta lan berriari ekiteko garaian.

Aginagako Herri Eskola



IKASTURTE HONETAN, 11 IKASLE IZANGO DITU AGINAGAKO HERRI ESKOLAK.

Zubietako Herri Eskola



ZUBIETAN 12 IZANGO DIRA IKASLEAK. ARGAZKIA ATERATZEA ZAILAGOA IZAN ZEN ZUBIETAN.



ALOÑA
LOIDI

Txokoalde

Ezustekez ezusteko

Egun normal bat zen, asteazkena, eta lanetik latera ondoren Oriora joan nintzen. Arratsaldeko 18:05ak inguruan, Aitzondo jatetxeko aparkalekuan utzi nuen nire kotxea eta 19:00etan kotxera bueltatu nintzenean inondik inora espero ez nuen ezusteko batekin topatu nintzen. Nire kotxearen txoferraren aldeko aurreko kristala hautsita zegoen, *guantera* irekita zegoen eta eguzkitako betaurrekoak falta ziren, baina okerreña da irratia falta zela. Bai, bai, ondo ulertu duzue, egun argiz eta jende asko ibiltzen den lekuan gertatu zen dena eta ordubeteren azpitik.

Geroz eta jende lotsagabe gehiago dago mundu honetan eta nahiz eta denuntzia jarri, ez dago ezer egiterik, Ertzaintzak lapurrak harrapatu eta lapurtutako gauzak agertu ezean. Zer egingo dugu ba? Horrela dago gizartea gaur egun.

Gaiaz aldatuz, beste zerbait kontatu nahi dizuet ondorengo lerroetan. Guztiok jakingo duzuen bezala, irailaren 11n Kontxako bandera nork eramango zuen lehiaren azken norgehiagoka jokatu zen eta aurreikuspenen kontrako ezusteko denborak egin zituzten zenbait trainerek. Lehenengo tandan lau ontziak ziaboga eman eta eta bueltan zetozela Orioren eta Pedreñaren arraunek elkar jo zuten. Bi igandetako estropaden batuketan Pedreñak denborarik onena egin bazuen ere, Oriok jarritako inpugnazioa zela eta, epaileek GPSko datuak aztertu ondoren Pedreña kanporatzea erabaki zuten, Hondarribiarentzat geratuz bandera.

Ikusiko dugu zertan geratzen den sekulako iskanbila sortarazi duen eta uretan bertan ontzat eman zen estropada honetako banderarekin.



BEGOÑA
REKONDO

Kaleberri

Anima zaitez

Udaran atsedena hartu eta gero, datorren urriaren hasieran Etumeta euskaltegiak berriro bere gelak zabalduko ditu kurtso berri bati hasiera emateko. Jadanik matrikulatzeko epea irekita dago eta nahiz goizez, nahiz arratsaldean egin daiteke. Ordutegiak finkatu gabe daude oraindik. Ikasleen kopurua araberaren eta haien beharretara egokitzen dituzte, ahal bada behintzat. Maila esberdinak irakasten dituzte: euskalduntzea, alfabetatzea, EGA edo beste edozein euskara perfil azterketarako egiteko prestakuntza, eta abar.

Askotan entzun izan dugu “herri honetan hainbat analfabeto daude”, eta hirugarren munduko atzerapen gisa hartzen dugu. Baina konturatzen al gara, gure ama hizkuntzan, euskaran, asko eta asko alfabetatu gabeak garela? Arazo hau, behinik behin, ikastolan ibili ez garenak daukagu. Hitz egiteko ez daukagu arazorik baina, idazterakoan edo irakurtzerakoan



baditugu zailtasunak. Ez ditugu arau guzti guztiak ikasiko, baina bai garrantzitsuenak. Idazteko orduan, adibidez, “h” daramakiten hitzak zein diren jakin, edo “s” eta “z” ondo nabarmentzen ikasi, edo gure hiztegi maila aberastu egunkaria irakurriz, eta halako gauza asko erakusten dituzte euskaltegian. Anima zaitez ba zure euskara maila hobetzen.

Txirrindularien erakustaldia

Kaixo irakurle: igande goizean kiroldegi kaurrera azaldu nintzen elbarrituen lehen criterium-a ikusteko asmoz. Bertara ailegatu orduko bazen musika eta giroa baina gehien atentzioa deitu zidana lasterkariek zuten gogo eta ilusioa izan ziren. Hamaikak puntuan eman zitzaion hasiera eta hor abiatu ziren bakoitza bere ezintasunarekin, ikuskizun polit bat eskaintzeko asmoz.

Ugarteko aldapa denentzat izaten da malda eta txirrindulariek nabarmendu zuten hori, nahiz eta aurrenekoek aise igotzen zuten. Eguraldia lagun, jende ugari bildu zen bide bazterrean eta lasterketez gain, ikasgai ederra eskaini ziguten elbarrituek.

Gure herritarra den Amador puntan ibili zen ibilbide guztian baina herrian irabazteko gogoz atera bazen ere, bigarren postuarekin konformatu behar izan zuen.

Lehenengo aldiz ospatzen zen hau Usurbilen eta ez dadila azkenengoa izan.

Bestalde, eta auzotar bati men eginez, zera esan nahi nieke udaletxeko langileei: zurezko eserlekuak jarri ziren auzoan zehar beste zenbait tokitan bezala eta zinez eskertzen dute askok beharrezkoak baitziren. Baina, denborarekin zahartzen eta itsusitzen ari dira eta mantenu txiki baten beharrean daude orain, eskertuko luketeela iruditzen zait bai eserlekuak eta bai eseriko direnek ere.

Kalezar



JOSEBA
PELLEJERO

“Zergatik ez dago txirristarik?”

Haurrak ikastolara joateko garaia heltzean txikitako kontuak etortzen zaizkit burura. Orduan ez zen orain bezala antolatutako jolas lekurik. Haur txikiak gelara sartzean andereño erdaldun bat izaten zen, eta honek euskaraz hitzegitea debekatzen zigun. Etxean ikasitako euskara gozoa, ezin mintzatu eskolan, “no hablaré en euskera” ehun aldiz idatzi behar, zigorra izaten zen euskaraz maistraren aurrean hitzeginez gero.

Zorionez aldatu dira gauzak baina, hala ere esan behar dut, gure auzoko haurrek ezin izango dutela oroituz ondo osatutako jolas tokirik. Lau urte pasa dira amona egin nintzela eta esan ohi den moduan, norbere eltzeari gatza botatzen hasten denean konturatzen da bizimoduaz. Bilobekin jolas parkera joaten hasi nintzenean konturatu nintzen zein egoera tamalgarrian zegoen. Behin eta berriz aipatu dugun kontua da baina tamalez, berdin jarraitzen du. Aurreko egun batean bilobak “zaldiak ez dauka heldule-



kurik eta ezin da ibili; eta zergatik ez dago txirristarik?” Kulunpioa ere segururik gabe dago eta ondorioz beste noranahi joan behar jolastera.

Bestalde esan, auzoko zenbait espaloi arriskuak jartzen direla euria egitean. Jendea maiz irristatzen da eta arazoak sortzen ditu.

Udazkena ere etorri zaigu gurera eta honekin batera goizetako freskura eta umeen zalaparta ikastolarako bidean. Merezitako oporraldien ostean berriz ere ikasturteari hasiera emanez.

Atxegalde



MARIA JESUS
URBIETA



AGUSTIN
ESNAOLA

Santuenea

«Santueneko Santuenak» jaiak ospatuz

Aurtengo jaietarako asteburu txarra zetorrela esaten ziguten eguraldia aurreikusten duten gizon-emakumeek. Eskerrak beraien iragarkiak ez direla onak izan eta eguraldi aparta egin duela.

Jai giroa, eguraldi onarekin beti ere alaiagoa gertatzen da. Txarangaren musikaren atzetik joateko eta dantzarako zer esanik ez, hobeto hotz pixka bat baina euririk ez eta musika ederra eskeletoa astintzeko. Jai giro honetan, Ibai-ondo elkartekoak lanean jardun duten bazkideak, behar den bezala jantzita ikusi ditut ere. Igandean egin zuen eguraldiko koloreko kamiseta batekin atera ziren, hori-horia, «Santueneako Santuenak» leloa eta deabrua santuaren goi txapelarekin imprimatuta zuten. Ikusteko moduko kamiseta, hori kolorekoa eta deabrua santu bihurtuta. Zer esan nahi ote du? Beraiei galdetu beharko diegu.

Bestalde, aurtengo jaiak apartak izan dira, bai ikuskizun aldetik baita udalak jarri dituen babes lekuegatik. Benito Ross katalanaren erakustaldia bere bizikleta eta bere motorrarekin ikusmina handi sortu zuen, auzoko plaza jendez beteta egon zen. Bazkarietarako eta mus txapelketarako jarri diren karpak oso egokiak izan dira ere. Larunbateko haur



jolasak egokiak eta denbora luzean izan zirenez, umeak ondo asetuta bukatu zuten. Gaez, Larra Djak martxa handi jarri zuen eta eguraldiaren laguntza eduki zuenez, jendea, gazte eta heldu, eskeletoa ondo astinduta bukatu zuten. Igande goizean beste saio berri bat, zaldi proba izan genuen, Arratzaingo zaldia Etxetxoko zaldiaren aurka. Irabazlea Etxetxoko zaldia izan zen. Eta bukatzeko auzoko une garrantzitsuenak eta tripatsuenak, sardin-jana ostiralean eta piper-jana igandean, jendea gustura eta tripa ondo beteta. Hau da patxada. Hau da tripa-zaku.



SARA
LAZKANO

Urdaiaga

Iraila

Iraila izango da seguruenik urteko hilabete Igorrotatuenetariko bat. Eta nola ez, iraila oporren amaierarekin lotzen badugu. Eta noski, lana, ikasketak, estresa, egin beharra eta "rutina" rekin. Atzean uzten ditugu despertadorerik gabeko egunak, astearteko parrandak, eguzkipeko kuluxkak, eta orrazdun kaxatxo baten menpean bizitzen hasten gara, berriz ere, hamaika hilabetez.

Eta laster, aurtengo San Estebango jaiak ere oroitzapen bihurtzen hasiko dira. Ahaztu baino lehen, ongi joan direla esan, egun politak igaro genituela punta honetan, eta gau aldrebes xamarak ere bai. Eta eskerrak guztion partez bertara hurbildu zinetenei eta bereziki ekimenetan parte hartzera animatu zinetenei. Izan ere, ezinezkoa da festak aurrera ematea zuek gabe.

Eta uda amaitzean, eta besterik ezean, udazke-



nari atera beharko diogu alderik onena, eta hondartzako egunak ahaztu eta arratsalde freskoetako bueltak gogoz hartu behar ditugu. Ohitutzen hasi beharko dugu igande euritsuetara ere, hauen xarma bilatzean dago gakoa, nonbait, uda atzean uztea hain zail ez egiteko.

San Praixkuak begibistan

Kaixo denoi! Oporrak bukatu eta dagoneko hasiak gara bai ikasle eta baita langileak ere betiko martxan. Pereza pixka batekin, baina... Aginagako jai batzordeak, ordea, ez du geldirik egoteko astirik izan, San Praixkuak ate joka baititugu.

Aurten, ekintza berri eta xeble bat antolatu nahi izan dugu; herritarren arteko herri kirolak: trontza, ingudea, karretila, arto aletzea... Ekintza honen helburua, adin ezberdinetako herritarrek parte hartzea. Honenbestez, jendea anima dadila! Guztion artean arratsalde polit bat pasatzeko aukera izango baitugu.

Honez gain, azken aste hauetan mugimendua izan da nagusi herriko frontoian, izan ere, aurten ere, azken bi urteetan bezala, San Praixkutako pilota txapelketako partidak jokatzen hasiak baitira. Ia iluntzero egoten dira par-



tidak, bai eskuz eta bai palaz. Txapelketa urriaren 4an amaituko da, egun horretan arratsaldez jokatuko baitira eskuzko finalak. Irailaren 30ean berriz palazko finalak izango ditugu.

Besterik gabe, jaien zain geratzea besterik ez zaigu geratzen! Hasi da "cuenta atrás"!

Ondo pasa San Praixkuak!

Aginaga



**ANE
MANZISIDOR**

Sortetxera berriro

Herrian etxeak altxatzen ari direla ikusteko kezka, poz eta haserreak harrotu ditu, denak oso arrazoizkoak.

Kezkak, kanpotar asko herrian finkatzeak maiz ez dakarrelako gauza onik. Lapurdi eder horrek, adibidez, abuztuan funtzionatu eta berehala ixten du pertsiana, hurrengo urtera arte. Paisaje polita, eguberrietako belen horien antzekoa: isil, bizigabe, geldia. Panorama: kanpotarrekiko morrontza, pobrezia.

Bizipozak ere suspertu ditu, bertan jaiotakoek herria urrun-urruna ikusten zutelako, ezinezko paradisu gisa, ia. Orain, umea aitona-amonon etxean utzi ahal izango dute, zain dezaten, bila joan eta denak mahai jiran elkar-

tu aurretik. Belaunaldien segida geografiko-administratiboki ez haustea da kontua.

Haserrea, noski, bertakoei betidanik ukaturiko bizitegia kanpotarrak etorri eta moldatzea lortu dutelako, zubietarrenako begirunerik gabe. Etxebizitzaz ez ezik, negozioen antolamendu xebleaz ere ari gara: herrian (400 lagun) zazpi jatetxeraino ditugu.

Bukatzeko, orraz dezagun aspaldi honetan zabaldu den okerreko iritzia: Zubietan txaletak egiten ari dira. Egia, baina, batetik, etxeak ere egiten ari dira; bestetik, Zubietan jaio baina bertan bizitzeko eskubiderik izan ez duen jendea ere ari da kabia prestatzen. Kanpotarren baimenarekin.

Zubietan



**EDORTA
AGIRRE**

Berritua dator Aisiako Gida

Irailaren 20an, "Aisiako Gida" eta "Etxetik hasi behar delako" argitalpenen aurkezpena egin zen. Biak, Buruntzaldeko udalek argitaratuak. Usurbilen egin zen prentsaurrekoan, Xabier Alberro Astigarragako udaleko euskarako zinegotziak eta Ibon Beristain Usurbilgo udaleko euskarako zinegotziak hartu zuten parte.

Ikasturte berriarekin batera iritsi da "Buruntzaldeko Aisiako Gida 2005/2006". 16 urtetik beherakoei euskaraz aisiako edo denbora libreko zer eskaintza dagoen azaltzea da gida honen xedea. Aurtengoa gidaren laugarren edizioa izango da, eta, iaz bezala, bi zati nagusitan antolatua izan da: lehenengo partean, herriko informazio osatua bildu da. Bigarrenean, Buruntzaldeko gainerako herrietako informazio laburtua jaso da.

750 ale banatuko dira

Buruntzaldeko bost udalek argitaratu dute gida hau. Usurbilen, guztira, 750 ale banatuko dira. 16 urtez beherakoek etxean bertan jasoko dute gidaren ale bana. Herriko taldeei ere, postaz bidali zaie. Dena den, gida hauetako bat eskuratu nahi duen orok udal Euskara Batzordera jo dezake.

"Etxetik hasi behar delako"

Beste urte batzuetan bezalaxe, Buruntzaldeko udalek "Etxetik hasi behar delako" kanpaina ere jarri dute martxan. Euskararen transmisioan, gurasoek duten garrantzia azpimarratzen dator kanpaina hau. Ez bakarrik erdaldunak diren gurasoen kasuan, baita gurasoak euskaldunak diren kasuan ere. Aholku praktikoak dakartzatza "Etxetik hasi behar delako" argitalpentxoak.

Aholkuekin batera, euskara ikasteko gurasoek dituzten abantailak ere aipa-



AISIAKO GIDAREN AZALA.

tzen dira "Etxetik hasi behar delako" argitalpenean. 12 urtetik beherako haurra baduzu, ba al dakizu euskalgiko matrikularen %70a Udalaren dirulaguntza bidez ordaintzeko aukera duzula? Hori bai, ikasturtean zehar, %80ko asistentzia bermatu beharra dago. Informazio gehiago udal Euskara Zerbitzuan (943 371 999, euskara.usurbil@udal.gipuzkoa.net) edo Etumeta Euskaltegian (943 372 001).

Dirulaguntza eskaerak egiteko epea

Abezala, dirulaguntzen inguruko lege berria betearaztea derrigortu zaie udal guztiei. Aurrerantzean, beraz, dirulaguntzak beste era batean banatuko dira. Udalak deialdi bat egingo du eta eskaerak egiteko hilabeteko epea zabalduko da.

Neurri honek kultur eta kirol talde denei eragiten die. Hala nola, Ongizate zein Euskara Zerbitzuetatik dirulaguntzak jasotzen dituzten elkarre eta gizabanako guztiei ere. Hitz gutxitan, dirulaguntza bat eskatzen duen orori.

Dirulaguntzak eskatzeko hilabeteko epea izango dela esan dugu. Irailaren 7an ireki zen eskaerak egiteko epea, beraz, dirulaguntzak eskatzeko egun gutxi geratzen da.

Begirale titulua eskuratzeko ikastaroa

Buruntzaldeko udalek begirale titulua eskuratzeko ikastaroa antolatu dute. Urriaren 8an hasi eta maiatzaren 13an amaituko da ikastaroa. Saioak larunbatetan izango dira, Hernanin: goizez, 10:00etatik 14:00-etara; arratsalde, 15:30etik 19:30era.

Hala nola, lau asteburuko egonaldia egingo dira aterpetxe batean (larunbat goizean abiatu eta igande arratsalderarte).

Ikastaro amaieran, titulua

Ikastaro teorikoa egin, praktikak burutu eta memoria aurkeztu ondoren, Eusko Jaurlaritzak homologatutako "Haur eta Gazteen Aisialdirako Begirale Titulua" jasoko dute ikasleek.

Informazio gehiago Udalean, 943 37 19 99 telefono zenbakian.

Irailaren 26an hasiko dira eskolak Zumarten

Zumarte Musika Eskolako matrikulazio kanpaina amaitu berri da. Arrakasta handiz, gainera. Haur eta helduen artean, guztira, 200 ikasle matrikulatu baitira.

Abesbatza eta helduen musika mintzaira taldean izena emateko epea, ordea, irailaren 30a arte luzatuko da.

Informatika musikala

Informatika musikaleko ikastaroan ere, berdin. Musika moldaketak, partiturak eta abar ordenagailu bitartez eginen ikasi nahi duenak, oraindik izena emateko aukera dauka. Informazio gehiago, Zumarte Musika Eskolan. Telefonoz (943 37 15 94, egun eta ordu hauetan: astearte, ostegun eta ostiraletan 18:00etatik 20:00etara.

Web orria: www.zumarte.org

Matrikulazio kanpainari ekin dio Etumeta Euskaltegiak

Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundeak, AEK-k, 2005-2006 ikasturteko matrikulazio kanpaina aurkeztu berri du. "Helmuga euskara" da aurtengo kanpainaren leloa eta euskara ikastea bidaiarik ederrena izan daitezkeela adierazi nahi du. Izena emateko epea irailaren 30ean amaituko da.

AEK- Etumeta Euskaltegiaren eskaintza zabala da: urte osoko ikastaroak, ikastaro trinkoak, enpresentzako planak eta ikastaro bereziak, hizkuntza eskakizunak, EGA prestatzeko ikastaroak, etorkinentzako ikastaro bereziak... Aurten, teknologia berrien eskutik iritsi da berritasuna. Idazkuntza lantegia online eskainiko du AEK-k, komunikazio eta informazioaren teknologien esparrua landuz sortu duen lehen ikastaro birtualari esker (informazio gehiago, www.aeknet.net web gunean).

Dirulaguntzak jasotzeko aukera ugari

Usurbilgo euskaltegian ikasten dutenek dirulaguntza jasotzeko aukera dute. 12 urte azpiko haurrak dituzten gurasoei, esate baterako, matrikula osoaren %70a itzuliko zaie. Langabetuek ere, dirulaguntza berdina jasotzeko auketa dute.



MATRIKULAZIO KANPAINAREN AURKEZPEN- EKITALDIA BILBON.

Irailaren 30ean amaituko da izena emateko epea

05/06 IKASTURTEKO ESKAINTZA:

Euskalduntze maila guztiak, EGA, alfabetatzea.

MATRIKULAZIO-EPEA:

Irailaren 30a bitartean.

NON MATRIKULATU:

Etumeta Euskaltegian, Kale Nagusia 43. (943 372 001).

NOIZ MATRIKULATU:

Astelehenetik ostiralera, arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara.

DIRULAGUNTZAK:

12 urte azpiko haurrak dituzten gurasoei, matrikula osoaren %70a itzuliko zaie (beti ere, asistentziaren %80a ziurtatzen bada). Langabetuek ere, dirulaguntza berdina jasotzeko aukera dute.

Pintura eta eskulan ikastaroak Aterpen

Susana Martinek pintura eta eskulan ikastaroak eskaintzen ditu Aterpe tailerrean; haurrentzat nahiz helduentzat. Ikastaro berriak urrian hasiko dira eta izena emateko epea zabalik dago jada.

Lau urtetik gorako haurrak hartzen ditu Susana Martinek. Astean bi egunez.

Helduentzako ikastaroak ere eskaintzen ditu: pintura, eskulanak eta errestaurazioari loturikoak. Helduekin, ordea, astean behin bilitzen da.

Haur nahiz helduentzako ikastaroak urrian hasiko dira. Ikastaroen egunak eta orduak ezagutzeko edota izena emateko, honako telefono zenbaki hauetara deitu behar da:

609 413 883/ 943 377 776.



URRIAN HASIKO DIRA ATERPE TAILERREKO IKASTARO BERRIAK.

Mendian ez da giro

Motoak eta zakurrak direla, Iartzazabal baserrikoek 15 ardi galdu dituzte aurten

Haserre dago Santos Jauregi. Eta ez da gutxiagorako. Aurten, 15 ardi galdu ditu jada. Motoak baina bereziki zakurrak dira kalteen eragileak. Hori dela eta, Andatzan egon behar zuten ardiak baserrira jeitsi behar izan ditu Santosek. Galera handiagoa izan baino lehen.

NOAUA. Andatzatik baserrira ekarri behar izan dituzu ardiak. Zer dela eta?

Santos Jauregi. Motorren zaratak eragindako beldurraren ondorioz, ardi askok kumea galdu dute. Baina okerragoa da zakurrena. Zakurrak ardia inguratzean, ardia ikaratu eta korrika hasten da. Zakur batzuk, gainera, segitu egiten dute ardia. Ardiak ez dauka defentsarik, hain txoroa denez, salto egiten hasten da. Koxkan behera erori eta hortik aberi ugari datoz.

SANTOS JAUREGI

“Ardi hauek Andatzan egon behar zuten. Baina zakurrengatik ekarrita daude”


Ez hori bakarrik. Zakurrek, orain, ez dituzte lepotik itotzen. Atze partetik txikitzen dituzte ardiak. Errape ondotik eta iztarretatik kozka egiten diete, akatu arte.

N. Oker ez banago, galerak handiak izan dira zuretzat.

S. J. Hauek denak (ardi multzo handi bati seinalatuz) Andatzan egon dira. Orain ere, han egon behar zuten. Baina zakurrengatik ekarrita daude. Aurten, 12 akatu dituzte. Okerrena da ez daki-gula zenbat kume galduko diren. Ez baditu lau hilabete kunplitu, ardiak ezin du arkumea barrundik atera. Usteldu egiten zaio barruan eta gero itsatsita geratzen da. Azkenean, ardia ere hil egiten da.

N. Zakurrak ez ezik, motoak ere asko dabilza mendian.

S. J. Trialeko motoak ardiari ez dio ia kalterik egiten. Badira ardia ikusi eta



IARTZAZABALGOAK OSO KEZKATUTA DAUDE.

mantsotu egiten direnak. Beste batzuei, ordea, faborez ardiak ikustean beste aldetik joateko esan eta “gu nahi dugun tokitik joango gara” erantzun. Zergatik ibili behar dute motoak pistan ardi bila? Aurrean hartuta, ardi batzuk koxkan behera eta besteak ahal duten tokira ihes egiten...

Lau erruberako motoak ardiak aurrean hartuta ikusi ditut. Ardiak erortzen sumatu eta hala ere bost axola. Hori ez da egiten! Ez al zuen ikusten ardiei kalte

egiten ari zela?

Ardiak, neguan, produkzioan egoten dira. Baina udan mendian bizi behar dute. Eta ardi hauen mendia Andatza da. Ardiak baserrian zein gastutan dau-den ikusita, nondik bizi behar dugu?

Udaltzaingora jo duzula entzun dut.

S. J. Ahalegina egiten ari dira. Panel batzuk jarri behar dituzte. Galerazi ez, baina mendira nola joan behar den jakinarazteko.

“Mendian laguna behar da, mendian ez da kontrarioa behar”

Ardia da Urdaigako Iartzazabal baserrikoen sustengu nagusia. Santos Jauregi, Iartzazabalgo artzaina, kezkatuta dago. Azken urteotan kalte handiak pairatu behar izan ditu. Bereziki, zakurrek eragindako kalteak. Santosek esan digunez, “Beti esaten ari naiz, era onean, begiratzeko pixka bat. Ardiak ikustean zakurra ondo kontrolatuta eramateko”. Batzuk badira oso ondo edukatutako zakurrak, baina ez denak. Modu txarrean jarri diren jabeak ere tokatu zaizkio: “Kaletik etorri, San Esteban pasa, zakurrak askatu eta ‘Estamos en el monte, y el monte es de todos’ entzun izan dut. Badakigu

mendia denena dela. Baina bakoitza bere tokian eta inorri kalterik gabe ibiltzeko”, adierazi digu Iartzazabal baserrikoak.

Gaia, tamalez, ez da berria. Orain bi urte 500.000 pezetako galera izan zuela esan digu Santos Jauregik. “Aurten, uste dut pasa egingo naizela. Nondik pagatuko ditut horiek?”; galdera honi ez dio erantzunik aurkitzen.

Arazoak arazo, lagunkoi azaldu zaigu Santos: “Mendian laguna behar da, mendian ez da kontrarioa behar. Batengatik, birengatik, denak nozitu behar dute? Hori ere ez da horrela, baina zerbait egin beharra dago”.

Jende ugari ibili zen Santueneko jaietan

Aurtengo jaiak azken urteotako jendetsuenak izan dira. Aldameneko argazkian ikusten den moduan, Benito Ross kirolariaren ikuskizunak lagun asko erakarri zituen.

Larunbaterako iragarrita zegoen Benito Ross trial kirolaria. Guk ere, hala aipatu genuen aurreko alean. Baina larunbatean ezin eta ostiralean gerturatu zen munduko txapelduna. Hala ere, jendeak ez zuen hutsik egin. Ezta gainontzeko ekitaldietan ere.

Festetan ipinitako karpa lagungarria izan zen. Datozen urteetarako zein beste jai batzuetarako kontuan hartzekoa.

Jaietako irudiak,

www.noaua.com web orrialdean

Gure web orrialdean, festetako irudi asko topatuko dituzue, "Santueneko Jaiak" atalean hain zuzen. Zure argazkietarako tokia ere bada. Festetako irudirik sareratu nahi baduzu, bidali argazkiak erredakzioa@noaua.com helbidera.



BENITO ROSS MUNDUKO TXAPELDUNAK IKUSKIZUN PAREGABEA ESKAINI ZUEN SANTUENEKO FESTETAN.



ZIRIKA ZIRKUSEKOEK IKUSKIZUN POLITA ESKAINI ZUTEN.



JENDE UGARI BILDU ZEN SARDINA DASTAKETAN.

h k k l , 4
T H 43 3 57 42

LK
UT ZE

ETXEK

T
ITZU

F OT K
ZKI K
IKTU K
K NOEL TU K

G L **G**

garraioak

ZABOR BILKET

TELF: 943 37 01 46

Patxi Labaka, Erroizpe elkarteko ohorezko bazkidea: “Gune gozo asko pasa ditugu elkarte honetan”

Erroizpe elkarte bedeinkatu zuen duela 50 urte. Apaiz egin berria, beste bi lagunekin batera Erroizpe elkarteko ohorezko bazkide izendatu zuten. Patxi esan digunez, “beste meriturik ez genuen guk izan”. Donostiako Santa Maria elizako apaiza da. Erroizpe elkartean, lagun giroan eskaini zigun honako elkarrizketa.

NOAUA! Zein asmorekin zabaldu zen Erroizpe elkarte? Gogoan al duzu?

Patxi Labaka. Ez zen gaurko Txokoalde izango, baina ia gaur baino gehiago ote zen. Hemen gizon pila bat zegoen orduan. Gaur oso gutxi dago. Hemen ez dago taberna batere. Zumeta hor dago baina tabernarik ez dago. Orduan Ximone zen. Hantxe izaten ziren, tabernan euren tertuliatxoak egiten, ardo pixka bat edaten... Toki gehiagotan bezala, Txokoalden ere beraiantzako gune bat sortzeko beharra ikusi zuten. Gaur egun elkarte dena, etxeko bajera zen garai batean. Arrantzarako barkuak zeuden hemen.

N. Zergatik zara ohorezko bazkide?

P. L. Hiru izan ginen ohorezko izendatuak. Garai hartan, ohorezko bazkideak izendatzea ohikoa izaten zen. Urte horretako abuztuaren 7an (1955), San

